

## KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE)

Konpetentzia eleaniztunak hainbat hizkuntza, ahozkoak edo zeinuzkoak, ikasteko eta komunikatzeko modu egoki eta eraginkorren erabiltzea eskatzen du. Konpetentzia horrek esan nahi du norberaren hizkuntza-profilak aitortu eta errespetatu behar direla, eta norberaren esperientziak baliatu behar direla mediaziorako estrategiak garatzeko eta hizkuntzen arteko transferentziak egiteko, hizkuntza klasikoak barne, eta, hala badagokio, trebetasunak mantendu eta eskuratzeko hizkuntzan, familia-hizkuntzan edo hizkuntza ofizialetan. Era berean, gizartearen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna ezagutzera, balioestera eta errespetatzera bideratutako dimentsio historikoak eta kulturartekoak biltzen ditu, bizikidetza demokratikoa sustatzeko helburuarekin.

### LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK... ..

### ONARRIZKO HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK...

KE1. Gutxienez, hizkuntza bat erabiltzen du, familiako hizkuntzaz edo hizkuntzez eta hizkuntza ofizialez gain, komunikazio-premia erraz eta aurreikusteko modukoei erantzuteko, bai haren garapenari eta interesei erantzuteko, bai eremu pertsonaleko, sozialeko eta hezkuntzako eguneroko egoera eta testuinguruei erantzuteko.

KE1. Hizkuntza bat edo gehiago modu eraginkorren erabiltzen ditu, familiako hizkuntzaz edo hizkuntzez eta hizkuntza ofizialez gain, bere komunikazio-premiei behar bezala eta egoki erantzuteko, bai bere garapen eta interesei dagokienez, bai eremu pertsonaleko, sozialeko, hezkuntzako eta profesionaleko egoera eta testuinguruei dagokienez.

KE2. Bere esperientzietatik abiatuta, hizkuntza-eskakizunen aniztasuna ezagutzen du eta norberaren ikaskuntza-prozesuei buruzko gogoeta egiten du, eta hizkuntzen arteko transferentzia-estrategia errazak modu gidatuan esperimendatzeko, eta konfiantzazko jarrera adierazten du komunikatzeko.

KE2. Bere esperientzietatik abiatuta, bere ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzen du, eta beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan eskuratutako ezagutzak eta komunikazioa transferitzeko estrategiak erabiltzen ditu, eta konfiantzazko jarrera erakusten du komunikatzeko gaitasuna hobetzeko ikasteko duen konpetentzian.

KE3. Lagunduta, ikastetxearen eta ingurunearen hizkuntza-aniztasuna identifikatzen du, errespetuzko eta enpatiazko jarrera hartuta, eta hizkuntzak komunikabide eraginkortzat eta bizikidetza hobetzeko tresnatzat hartuta.

KE3. Ikastetxearen eta ingurunearen hizkuntza-aniztasuna onartzen du, aniztasun horrekiko errespetuzko eta enpatiazko jarrera erakusten du, eta hizkuntzak komunikabide eraginkortzat, kultura-ondareztat eta gizarte-kohesioa sustatzeko tresnatzat hartzen ditu.

